


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/11/20) Hurrengo saioa: 2018/12/04	Zabalegiko Martinen urtemuga	Zabalegiko Martinek 100 urte azaroaren 30ean beteko dituzenez, oroigarria eta lore sorta eramango zaizkio.	- Pott keramikakoekin adostu oroigarriaren edukia
	Abenduko ekintzen agenda	Abenduak 2: Igandea izanik. Euskaraldiaren 10. eguna eta Euskararen egun bezpera ospatuko da Itsason. Euskaraldiaren antolatzaileek azaroaren 30ean banatuko digute beraien ospakizun proposamena, beraz, honen berri guregana iritsi bezain azkar helaraziko dizuegu herritarroi . Abenduak 8: Willis-tarren familiak aurtengo udan Estatu Batuetan egindako bidaiaren berri emango digute irudi bidez eta bertako eran prestatutako janaria dastatzeko aukera ere izango da. Abenduak 15: Herri Batzarra. Gai zerrenda erreparatu da eta herrian ematen ari diren ikastaro eta tailerren balorazioa egiteaz gain, aurrera bideak zeintzuk izango diren proposatzea adostu da. Abenduak 22: Ekintza hauek burutuko dira: Gabon kanten entsaioa, Gabonetako apainketa Ostatu eta Udalean eta Olentzeroren etorrera. Abenduak 24: Gabon eskea	- Euskaraldiaren antolatzaileen proposamena jaso, geurera egokitu eta herrian zabaldu. - Lekua eta jatekoa adostu. - Prestaketa lanarekin jarraitu - Komunikazio batzordean adostuko dira ordutegia eta gainontzeko zehaztapenak. - Ekintza guztien jakinarazpena prestatu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/11/27) Hurrengo saioa: 2018/12/11)	ARGITU Energia eraginkortasunari buruzko tailerra	Energiaren inguruko 2. tailerra (ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA) egiteko aukera iritsi zaigu eta positiboki baloratu da. Data eskaintza kontutan hartuta, abenduaren 17an, 17:30etan egitea proposatu da. ARGITUko lehen tailerra egin ez zutenentzat (fakturen datuei buruzkoa izan zen) herritarrei aukera hori ere eskaintzea adostu da. Goikoaren jarraian egingo litzateke.	ARGITUkoekin data konfirmatu Jakinarazpena eta izen emateko aukera zabaldu
	Abenduko ekintzen jakinarazpena	Abenduko ekintzen jakinarazpena prestatu da (nahiz eta daturen bat zehazteko dagoen)	Jakinarazpena zabaldu (ostiralean)
	Zabalegiko Martini oroigarria	Azaroaren 30ean Zabalegiko Martinen urtemuga izanik (100 urte egiten ditu), herritarren bisita antolatu dugu: Udaleko kideez gain, beste batzuk ere bertaratuko dira: dantzariak, txistulariak, jubilatua, ... Familiarekin horrela adostuta, prentsa ere bertan izango da.	Kazetariarekin harremanetan jarri
	Herri Batzarra	Power-Point-eko informazioa osatzen hasi gara.	Lan honekin jarraitu



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/11/28) Hurrengo saioa: 2018/12/12	Udaletxeko obra	Udaleko obra luzatzen ari da, eta kanpokoarekin hasiko dira orain (asfaltoa). Hondakinen kontainerra herriko sarrerako aparkalekuan kokatuko dute eta langileentzat jarrita dagoen obra-barrakoa tokiz aldatuko da (zehazteke nora)	
	Ganadu aska San Lorentzon	Dagoeneko eramanda dago ganadu aska San Lorentzora, eta ermita aurreko belardian jarriko da (hesiaren kontra). Ura bertaratzeko lanak aste honetan egingo ditu Muttegi eta, askaren luzera kontutan harturik, zati bat (hesitik kanpora) iturria jartzeko erabili nahi da.	- Gure proposamena Narrasperri adierazi eta iturria martxan jarri - Ur manantialaren kanpoaldean iturri bat jarri
	Sasieta	Sasieta-n Gabirikoekin batera egindako bileraren berri eman da. Txartel berriak aterako dira Alegiko garbigunerako, eta errefusaren kontenedore grisa irekitzeko. Izan ere, kontenedore hau itxi egingo da, eta astean egun batez ireki ahal izango da, txartelaren bidez. Haur edo helduentzat pixoihalak erabiltzen dituztenentzat kontenedore txiki bat jarriko da kandadu eta giltza batekin (egunero bota ahal izateko). Itsason konposta komunitarioarekin jarraituko da, eta Alegian ere martxan jarri	Herri batzarrean landuko da, eta urtarrilaren 11an bilera berezi bat deituko da Alegian, Gabiriko Udala eta Sasieta ordezkariekin batera.